

Xabier Arzalluz

Deia, 1983-07-31.

Hilabete batzu barru gure herriarentzat garrantzi handia duten hauteskundeak ditugu.

Beste lau urterako Eusko gobernuaren jokoa dago auzitan.

Auzia funtsean zertan datzan? Gobernu hau *abertzale ala espainolista* izan daiteke. Hara diferentzia! Ikusi dugu Karlos Garaikoetxearen Jaurlaritzak zenbaterainoko lana egin duen: oinarri-oinarriko eusko erakundeak gaurkotzen, lehenengo aldiz historia osoan eskualdeen arteko koordinaketa politikoa buru-mamitzen; eraiki den *egitura* berri honen arabera *azpiegiturak*, biak, eskatzen dituzten etxaguntza, arautegia eta giza-erakundeak gertatzen.

Non egongo ginen gaur EAJren ordezkariak PSOEk lehenengo *Consejo General Vasco* hark emandako gurrupilari jarrai bagenio? Hor baziren abertzale batzu, ez dut hau ahaztu nahi, baina burua eta gehiengoak beste bideetan ibiltzeko eta beste norabait joateko gertatuak ziren. Abertzale den edonork, siglak aparte, exenplo honetaz baliatzea nahikoa du esan dutanaz ohartzeko. Badakit EAJ-PNV berak eta honen babesean Karlos Garaikoetxeak izendatutako gobernuak ez dituztela egin behar guztiak bete; eta beteak izan diren denak ere ez dituela ondo egin; neuk alderantziz planteatuko nuke arazoa. Zein talde politikok egin zezakeen lau urte horietan herrikoia eta erantzun handiagorekin lortu den goi-mailako lan hau?

Baina ez dut oraindik *Xabier Arzalluz* izenburua ezkerrean aipatu.

Irakurleak berea duen ikuspuntutik igerri dio dagoeneko nirearen helbidea: EAJk egin duen lanak erakusten du ondoen Arzalluzen eragina. Nik neuretik esan nahi dut, nire laguntzarik behar ez badu ere, Xabier dela Juan Ajuriagerraren ondoan gotorki aritu eta gero gizon handi hau joan zitzaigunean ordezkari izaten jakin duen EAJren ardatza:

Hau ez da, ez makinetan, ez izaera giza erakundeetan ere, aise prestatzen den pieza.

Alderdiaren estatutuak Batzar Nagusietan berritzen dira; EAJn gertatu da hau hiruzpalau aldiz; gizonek eratutakoak garaiz-garaiko moldaketa eskatzen dute, une bakoitzeko arazoei aurpegia bizkorren emango diotenak. Ez baitago sasoiak estatutuetara egokitzerik, alderantziz baizik: estatutuak sasoi bakoitzaren beharretara egokitzea baizik.

Ez personalismoaren mende, Euskadi jomuga dugula baizik.

Hilak dirautenak bakarrik baitira mundu honetan *betirako* egokituak daudenak, eta herriarenganako zerbitzu honek gaur-hemen aurrean ditugun hauteskunderi begira, Xabier Arzalluzen zuzendaritza beharrezko deritzat.

Neuk uste halaxe esan.